

LANKIDETZARAKO ETA ELKARTASUNERAKO EUSKAL AGENTZIAREN KONTSEILU ERREKTOREAK 2024KO MAIATZAREN 29AN EGINDAKO BILERAREN AKTA

Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren egoitzan (Gaztelako Atea 15, Gasteiz) egin da Kontseilu Errektorearen bilera, 2024ko maiatzaren 29an, 13:00etan hasita. Honako pertsona hauek parte hartu dute:

- Jose Antonio Rodriguez Ranz jauna, Giza Eskubideen, Memoriaren eta Lankidetzaren sailburuordea, eta Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren (aurrerantzean, eLankidetz) eta haren Kontseilu Errektorearen presidentea.
- Batzordekidea: Jone Fernández Landa andrea, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendaria. Aurrez aurre parte hartu du.
- Batzordekidea: Josu Urrutia Beristain jauna, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa. Telematikoki parte hartu du.
- Batzordekidea: Martín Iriberry Villabona jauna, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa, Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen partetik. Aurrez aurre parte hartu du.
- Batzordekidea: Elsa Fuente Do-Rosario andrea, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa, GGKE-en Koordinakundekoak ez diren beste eragile sozial batzuen aldetik. Aurrez aurre parte hartu du.
- Idazkaria: Paul Ortega Etcheverry jauna, eLankidetzako zuzendaria.

Halaber, bileran parte hartu dute, gonbidapen bidez eta gai-zerrendako gaiak aurkeztean laguntza teknikoa emateko, Cristina Ocio andreak (kontrol ekonomikorako bulegoko auditorea), Conchi Hierro andreak (eLankidetzako administrazioaren eta zerbitzuen arduraduna) eta Alazne Carmiña andreak (eLankidetzako koordinazio teknikorako zerbitzuaren arduraduna).

Sarrera

Sailburuordeak hartu du hitza. Ongietorria egin die parte-hartzaileei eta hasiera eman dio saioari. Honako hau da saioaren gai-zerrenda:



1. 2024ko apirilaren 12an egindako azken saioko akta irakurri eta onartzea.
2. 2023ko Urteko Kontuak onartzea
3. 2024ko hitzarmenen eta zuzeneko dirulaguntzen proposamenak onartzea
4. 2024ko ekintza humanitarioko proiektuetarako laguntzak emateari buruzko informazioa
5. Eskariak eta galderak.

1. Aurreko saioko akta irakurri eta onartzea.

Bileran parte hartu duten pertsonak ez dute inolako oharrik egin; hortaz, 2024ko apirilaren 12ko saioko akta onartu da, bertaratutako pertsona guztien aldeko botoarekin.

2. 2023ko Urteko Kontuak onartzea

Jose Antonio Rodríguez Ranzek azaldu du Urteko Kontuak Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren Ikuskaritza Zerbitzuak ikuskatu dituela eta eLankidetzaren egoeraren isla direla. Ondoren, Cristina Ociori eman dio hitza, auditoretza-txostena eta dagokion azalpen teknikoa aurkez ditzan, eta haren azterketatik sor litekeen edozein galdera edo zalantza erantzun diezaion.

Hasteko, aurreko urteko auditoretzarekin alderatuta gertatu diren bi berrikuntzak azaldu ditu. Lehenik eta behin, eLankidetzak izen berria du 2024ko otsailaren 15eko Lankidetzaren eta Elkartasunerako Legea onartu zenetik. Hortaz, ekitaldia izen zaharrarekin itxi zen, baina aurrerantzean eLankidetzaren-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia izena izango du.

Bigarren berritasuna honakoa da: "Kanpoko zerbitzuak" gisa sailkatuko dira profesional independenteen zerbitzuei dagozkien gastu guztiak. Azaldu duenez, aurreko ekitaldietan gastu horiek "Beste enpresa batzuek egindako lanak" gisa sailkatzen ziren, "Hornidurak" epigrafearen barruan.

Azalpenaren ondoren, Cristina Ociok cash pooling sistemaz hitz egin du. Sistema horren bidez, elkarte guztiek Eusko Jaurlaritzari lagatzen diote haien altxortegia; eLankidetzara 2021ean sartu zen sisteman. Beraz, dirua Eusko Jaurlaritzaren kontura igarotzen den unean, mailegu bat sortzen da, eta lotutako konpainien artean gertatzen denez, merkatuko interes-tasarekin lotzen da. Horren ondorioz, 2023an, Kutxabanken 344.747 € ordaindu dira, baina ez dira eLankidetzara transferitu. Izan ere, azaldu duenez, eLankidetzak ustiapen-dirulaguntza bat jasotzen du Eusko Jaurlaritzaren eskutik, eta, beraz, interesen zenbatekoa jaso izan balu, etekinik lortu ezin zuenez, zenbateko bereko ustiapen-dirulaguntzak itzuli beharko zituzkeen.

Puntu hori amaituta, diru-sarrera periodifikatuen ataleko emaitzetan 2022. urtearekiko izandako aldeak zehazten jarraitu du; 2022ko ekitaldian baino zifra baxuagoa eskuratu da. Era berean, 2022arekin alderatuta, handitu egin da onuradunei ordaindu beharreko saldoa, eta adierazi du pasibo hori esleitutako gastu bati dagokiola, baina, ekitaldia eteteagatik ez dela gauzatu, ez baitu denborarik eman transferentziak egiteko, baina transferentziak hurrengo ekitaldiko lehen egunetan sortzen dira.

Zehaztapen horien ondoren, Josu Urrutiak Eusko Jaurlaritzari ordaindu beharreko saldoari buruz galdetu du. Alazne Camiñaren eta Cristina Ocioren artean argitu dutenez, alde batetik, kobratutako dirulaguntzei dagokie, azkenean ez baitira erabiliko jaso ziren helbururako. Eta, bestetik, ordaintzeko konpromisoa duten espedienteen ordainketa jakin batzuen kasuan onuradunek egindako itzulketei edo uko egiteei dagokie. 2022an 382.000 eurokoa izan zen zenbatekoa, eta 2023an 360.000 eurokoa.

Beste galderarik ez dagoenez, bozkatu egin da, eta aho batez onartu dira urteko kontuak eta aurrekontua betetzeari eta legezkotasunari buruzko memoria.

3. 2024ko hitzarmenen eta zuzeneko dirulaguntzen proposamenak onartzea.

Jose Antonio Rodríguez Ranzek jakinarazi du puntu honetan zuzeneko bi dirulaguntza aurkeztuko direla, onartzeko, eta Paul Ortigari eman dio hitza, dirulaguntza bakoitzaren azalpen zehatza eman dezan.

Lehenengoa, Corporación Vivamos Humanos izeneko, 50.000 €-ko dirulaguntza da, Kolonbiako gatazka humanizatzeko eta bakea eraikitzeko lurralde-prozesuak indartzera eta bateratzera bideratua. Haren helburua Kolonbiako gatazka humanizatzerari eta lurraldeetan bakea eraikitzerari bideratutako tresnak eta erremintak ezartzea da, gizarte

zibilean oinarrituta, Agenda Humanitario Nazionalaren bidez, tokiko mailan, eskualdean eta nazio mailan inpaktua sortuz.

Hori lortzeko, azaldu duenez, Koordinakunde Humanitarioko 15 lurralde-erakundeak indartzeko eta artikulatzeko estrategia bat abian jarri nahi da, prestakuntza, aholkularitza tekniko- eta ezarpen-prozesuen bidez. Modu horretan, Agenda Humanitario Nazionalako proposamen bat eguneratu eta aurkeztu nahi da, tokiko, eskualdeko eta nazioeko espazioetan zabaldua egongo dena, eta nazioarteko zuzenbide humanitarioarekiko eta giza eskubideekiko errespetua bermatuko duena.

Bestalde, bigarren dirulaguntza Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren Lagunak elkarteari zuzenduta dago, saharar herriarekiko Elkartasunerako Nazioarteko Gazte Sarea sustatzeko. Horretarako, Saharako herriarekiko elkartasunerako Gazteen Nazioarteko III. Foroa Euskadin egitea planteatzen da.

Paul Ortegak zehaztu duenez, Foroa urriaren lehen astean egingo da Bilbon, eta Europako, Amerikako eta Afrikako hainbat herrialdetatik etorritako 150 gaztek parte hartzea aurreikusten da. Gaineratu du gazte-jendearekin eta saharar herriarekiko elkartasun-sarearekin lan egiteko ildoak babestu nahi dela, Foroa antolatuz eta zabalkunde-lana eginez.

Galderarik ez dagoenez, bi proposamenak bozkatu dira, eta aho batez onartu dira.

4. 2024ko ekintza humanitarioko proiektuetarako laguntzak emateari buruzko informazioa

Amaitzeko, sailburuordeak Alazne Camiñari eman dio hitza, eta 2024an ekintza humanitarioko proiektuetarako dirulaguntzak (PRE) emateari buruzko informazio laburra eman du.

eLankidetzako zerbitzu teknikoaren arduradunak jakinarazi du orain arte 36 eskaera aurkeztu direla, eta horietatik 14 onartu direla, hau da, 2.735.554,03 euro, eta bat baztertu dela baremazioan 50 puntu baino gutxiago lortzeagatik.

Nabarmentzekoa da lehen emakidako funtsen % 63,45 Afrikako kontinentean ahaztuta dauden krisietara bideratuko direla. Ahaztutako krisizat ulertzen dira nazioarteko laguntza humanitario nahikorik jasotzen ez duten edo horiek konpontzeko konpromiso politikorik ez duten krisi gogor eta luzeak.



Jarraian, proposamenen ezaugarri orokorrak azaldu ditu, eta, amaitzeko, adierazi du hurrengo balorazio-batzordea uztailen izango dela, eta azkena, hala badagokio, irailean.

Bere azalpenaren ondoren, Elsa Fuentek proposamenak aztertzeko prozesua Afrikarako erreserbaren bidez hasi izana ospatu du, eta arrazoia galdetu du. Alazne Camiñak erantzun du erakundeek proposamen gehienak irekiera egunean aurkezten dituzten arren, deialdia 2024ko abenduaren 31ra arte irekita dagoela, eta komeni dela ekintza humanitarioko estrategien deialdia (EHE) ere barematuta edukitzea, soberakinen bat PREra bideratu ahal izateko.

Hala, Afrikarekin lotutako proposamenak lehenetsi dira, deialdian ezarritako erreserbari erantzuteko, baita barne-antolamenduekin lotutako arrazoiengatik ere.


Beste iruzkinik gabe, Jose Antonio Rodríguez Ranz hurrengo eta azken puntura pasatu da.

5. Eskariak eta galderak

Legealdi honetako Kontseilu Errektorearen bileretan adeitasunez eta lasaitasunez eztabaidatu ahal izana eskertu du Josu Urrutiak, eta aurrerantzean ere hala jarraitzea gustatuko litzaioke.

Beste gairik proposatu ez denez, Jose Antonio Rodríguez Ranzek eskerrak eman dizkie bertaratu direnei eta amaiera eman dio legegintzaldiko azken saioari, 13:55ean. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 18.2. artikuluko lehenengo paragrafoan aurreikusitakoa betez, jakinarazten da Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorearen hurrengo saioan onartuko dela akta.


Oniritzia, Ander Caballero Barturen
jauna
Europar Batasuneko eta Kanpo
Harremanetarako idazkari nagusia


Paul Ortega Etcheverry
Kontseilu Errektoreko idazkaria
eLankidetzako zuzendaria

...the ... of ... and ...

...the ... of ... and ...

...the ... of ... and ...

...the ... of ... and ...

...the ... of ... and ...

...the ... of ... and ...